

Zabalik dago epea matrikula egiteko unibertsitate masterretan


2014/07/16

Irekita dago epea matrikula egiteko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaintzen dituen unibertsitate masterretan. Masterraren kasuaren arabera, matrikula egiteko egunak desberdinak izango dira. Baina, kasu guztietan, ohiko matrikulazioa epea izango da uzaileko oraingo egunotan.

Esaterako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Irakasle Gisa Aritzeko Gaitzen duen masterraren kasuan, matrikula epea zabalik egongo da hilaren 16tik 18ra. Eskolak emateko gaitzen duen masterrean matrikula *online* egin beharko da, hurrengo webgunean: Idazkaritza birtuala. Geroago, irailean, plaza libreak egonez gero, ezohiko matrikulazio epea irekiko da.

Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan eta Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate masterraren kasuan, aldiz, ohiko matrikula epea irekita egongo da uztailaren 17tik 22ra. Bi master horietako matrikula ere *online* egin beharko da, Idazkaritza birtualean. Irailean ere, izango dute bi master horiek matrikula egiteko ezohiko epea, hain zuzen ere, 2014ko irailaren 11tik 15era.

Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitatearen bideo informatibo berria:



Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan masterraren gaineko bideo informatiboa:



2014ko urrian hasiko dira eskolak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateako unibertsitate masterretan.



Kasu guztietan, matrikula egin aurretik, ikasleak beteta izan behar du aurre-inskripzioa orria. Horretarako, [aurre-inskripzioen webgunera](#) joatea besterik ez dago.

Matrikulazio prozesuan zalantzak sortuz gero, deitu daiteke **943 71 31 39** telefonora edo e-maila idatzi hurrengo posta-helbidera: aleibar@mondragon.edu Hala ere, sarean jarrita dago [Matrikulazioa egiteko laguntza gida](#).